

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak 400.000 euro inguru eskuratu ditu testamenturik egin gabe hildako nafarren ondasunak saltzeagatik

Onurak gizarte-erakundeentzat izango dira, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilarri jarraiki

Viernes, 25 de julio de 2014

Nafarroako Gobernuak bost etxebizitza eta hiru margolan saldu ditu azken hilabeteetan (eskuragarri dauden ondasunen % 80). Testamenturik egin gabe (abintestato jaraunspenak) hildako nafarren jaraunspenetik eskuratutako ondasunak dira. Ondasun guztiak salduta, 391.441,5 euro eskuratu dira. Horiei kasuan kasuko gastuak kendu ondoren, geratzen den kopurua gizarte-erakundeetara bidaliko da.

[Kontratazioaren Atariaren](#) bidez jarri zen abian

ondasunak saltzeko prozesua. Ondasunen zerrenda osoa honako hauek osatzen zuten: bost etxebizitza Iruñean, bat Tafallan, Jesús Basiano artista nafarraren margolan bat, Gaspar Montes Iturrioz margolari irundarraren lan bat eta Antonio Pérez Rubio madrildarraren bi lan.

Prozesuaren lehen fasean, Iruñeko San Anton kaleko bi etxebizitza esleitu ziren, enkantean, 58.550 eta 54.962,50 euroren truke. Enkantearen Baldintzen agirian ezarritakoarekin bat etorritz, Ondare Zerbitzuak 2 hilabeteko epea zabaldu zuen, 2014ko apirilaren 29tik ekainaren 29ra arte, esleitu gabeko loteak zuzenean besterentzeko eskaintzak aurkezteko. Eskaintza horiek jaso eta aztertu ondoren, honako ondasun hauek esleitu dira, zenbatekoaren arabera hurrenkerari jarraituta:

- Behe Nafarroa etorbideko 14. zenbakian dagoden etxebizitza (Iruña): aurkeztutako hamaika eskaintzen artean zenbateko handiena zuenaren truke esleitu da (171.171 €).
- Jarauta kaleko 73-75 zenbakietan dagoen etxebizitza (Iruña):



Esleitutako etxebizitza, Iruñeko Behe Nafarroako etorbidean dagoena

eskaintza bakarria egin duenari esleitu zaio, 56.695 €-ren truke.

- Gelbentzu kaleko 35. zenbakian dagoen etxebizitza (Iruña): hiru eskaintza aurkeztu ziren eta zenbateko handiena eskaini zuenari esleitu zitzaion, 44.102 €-ren truke.
- Montes Iturriozen margolana ("Paisaje"): eskaintza egin duen bakarrari esleitu zaio, 4.877 €-ren truke.
- Pérez Rubioren margolana ("Árboles"): eskaintza egin duen bakarrari esleitu zaio 542 €-ren truke.
- Pérez Rubioren margolana ("Cascada en el bosque"): kasu honetan ere eskaintza bakarria egin da eta 542 €-ren truke esleitu da.

Ez da egin Tafallako Del Olmo kaleko 6. zenbakian dagoen etxebizitza eta Jesús Basianoren margolana esleitzeko eskaintzarik, beraz, Ondare Zerbitzuak horiek saltzeko beste epe bat zabalduko du (informazioa lortzeko telefono-zenbakia: 848 422 972).

Abintestato jaraunspenak

1995 eta 2008 artean testamenturik egin gabe hildako 12 nafarrenak ziren ondasunak (abintestato jaraunspenak). Iruñean, Lizarran, Cascanten, Irunberrin eta Faltzesen bizi ziren hildakoak. [Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren](#) arabera, Komunitatea izango da hurbileko seniderik gabe eta oinordekorik izendatu gabe hildakoen ondasunen oinordekoa. Era berean, ondasun horien onurak gizarte-erakundeen artean banatu behar ditu.

Enkantea egindakoan, higiezinak mantentzeak eragindako gastuak kenduko dizkio lortutako zenbatekoari Nafarroako Gobernuak (komunitate-gastuak, zergak etab.). Ateratzen den zenbatekoa ongintzazko erakundeen artean banatuko da, ezarritako irizpideetan oinarrituta.

Iragan azaroan, Nafarroako Gobernuak enkante honen onurak jasoko dituzten ongintzazko erakundeak hautatzeko [deialdia](#) egin zuen.